

Ovni-ak eta fantasmak

Deia, 1977-07-06.

Ez al duzu platilo-hegalaririk ikusi?

Ikusiko duzu.

Gero eta gutxiago gara OVNI bat edo beste ikusi ez dugunok. Ipar-Ameriketan, hamabost miloi pertsonak ikusi dituzte orain arte, eta zori hau izan dutenen artean, han Lehendakari den Carter jauna bera. Batzuk, platilo-hegalari hoiek lurrartzen ere ikusi omen dituzte, eta lur-hontakoak ez diren hoiekin elkar-hizketak izan dituztela esan duen bat edo beste ere ba da.

Chicago-n bildu dira orain milatik gora hauzi hau aztertzeke asmotan, eta hoiien artean, astronomo, fisiko, sikiatra eta injineru asko.

Egiarik ba ote da hemen?

Herri-iritzi neurrian, ezagunak dira, honelako izurri edo epidemiak.

Gaurko komunikabideak bide direla egiak adina indar badu irudimen huts denak, eta fantasia hegalaria errazagoa dela esan genezake. Berri arruntez jendea aspertsua dagonez, miresgarri den edozer artzen da posible bezala.

Eta, jakina da, norbait zer berriren bat ikusten hasten den bezain laster sortzen dira gauza bera ikusten asten direnak.

Platilo hoiien aurretik beste gauza batzu zeuden modan.

Hoiien artean, mamuak, fantasmak.

Inglaterran gaztelu asko saldu da, eta garesti, fantasma eta guzti.

Baina gazteluetan bonbilak pixten hasi diren bezain laister uxatu dira mamuak.

Hemen ere argia laster egingo da.